



KRITIKA IBON EGAÑA

# Pikotxa asfaltoa joz

TITULUA: 'BIDEAN IKASIA'

EGILEA: ARANTXA URREBIZKAIKA

ARGITALETXEA: PAMIELA

**E**MATEN du Arantxa Urretabizkaia eroso dabilela *Zuri-beltzeko argazkiak* liburuarekin zabaldutako ildoan; *Bidean ikasia* lan berrian ere autobiografiara joz historia kolektiboaren berri ematen du, pasarte laburrez osatutako testuan. Lehen lerroan bizatiko Hondarribiko Alardearen inguruko gatazkari begira jarri da idazlea liburu berrian. Ospakizun berdinzalearen alde parte hartze aktiboa izan du Urretabizkaia mugimenduaren sorreratik, eta aurreneko bertuteetakoa horixe du liburuak, gatazkaren lehen eskuko testigantza jaso eta ematea.

Haatik lehen pertsonako kontakizunetik harantzago doa Urretabizkaiaarena, eta atalkako egituraketak aukera ematen dio ni-az besteko ahotsak testuan sartzeko. Fikzioari ere tarte egiten dio liburuak eta bere-beretik abiatu arren koraltasunera zabaltzen da, alardearen gatazkak busti dituen izen-abizenik gabeko herritarren kontakizunak jasotzera. Gatazkak eta intolerantziak hondarribiarren bizitzak, beren esfera intimoenera-

ino, nola mingostu dituen azaltzen du Urretabizkaia, nola heldu den eskola-umeen patiora, bizilagunen bebarrura edo familia ospakizunetara. Esperientzia propioaren eta fikzioaren bidez, hitz nagusiek difuminatzen duten errealitate txikiagoa, eszenaz eszena, pertsonaz pertsona, irakurleari begien aurrean jartzen dio idazleak. Irakurleari ezagunak egiten zaizkion istorioak ere oraindik zirraraz eta asalduraz irakurtzen dira, edo hala irakur ditzagun lortzen du idazleak.

Urretabizkaia idazkerak badu puntu *naif* bat, irakurtzen duguna, ezaguna izanagatik, lehen aldiz irakurtzen dugulako inpresioa eragiten diguna. Saihestu egiten ditu hitz potolo analitikoak (eman dezagun patriarkatua, misoginia, matxismoa), metaforetara jotzen du sarri ("asfaltoa pikotxaz jo" zuten Alarde parekidearen aldekoek duela hogeitaka urte) eta aldi berean errealitatea izendatzeko erabiltzen ditugun eguneroko hitzekiko kezka sakona du. Akaso horregatik eskaintzen die halako arreta Alarde baztertzaileren aldekoen irainei. Irainen mekanismoaren ingu-

ruko tratatu bat eraikitzen du egi-leak liburu honetan (nola hedatzen diren, amorrua mendeku-gose nola bihurtzen den, nola ematen zaion buelta irainari), eta eragiten duen biolentzia sotila bere gordinean erakusten. Irainarenak bezala, beldurraren bideak ere arretaz disezionatzen ditu Urretabizkaia barrurantz berrira jarrita, onestausun handiz.

Badira kronika historikotik hurbilago dauden testu-atalak ere, gatazkaren bilakaeraren berri jasotzen dutenak, Alardearen inguruko diskurtso sozialei erantzun nahi dietenak ("bertakoek soilik uler dezakete", "azken finean desfile militar bat da"), edo erakundearen hipokrisia eta ardura gabezia salatzen dutenak, izen-abizen eta guzti. Hasierako urteak sakontasun handiagoz azalduta daudela iruditu zaio irakurle honi, eta ekintzen kontakizun historikoa apur bat lausotuz doala gero, baina akaso gatazka honen inguruan ezin bestela idatzi; denbora zirkularra bihurtu denean, zaila da amaierarantz aurrera egiten duen narrazio bat osatzea.



**Gatazkak eta intolerantziak hondarribiarren bizitzak beren esfera intimoenataraino nola mingostu dituen azaltzen du Urretabizkaia**